

Irudimena
pizteko
ipuihak

IPUINKADAKA

Ekoizpena



Audiogela
Estudioa

Laguntzaileak



LEHEN KAPITULUAREN ESTRENALDIA:
ABENDUAK 3. SPOTIFY ETA IVOOX PLATAFORMETAN

[IPUINKADAKA PROIEKTUAREN TEASERRA](#)

FAMILIA OSORAKO EUSKARAZKO IPUINAK PODCAST-EAN

Azken urteotan podcast saio ezberdinen jaiotza bizi izan dugu; mota guztietako podcast-ak: historiazkoak, kultura, umorezkoak, elkarrizketak edo gaurkotasun-albisteena. Esan genezake edozein momentuan entzuteko formatu hau gure aisialdiaren parte bihurtu da.

Zergatik umeentzako podcast bat?

“Aita, ponnos un cuento” Esan zidaten nere seme-alabek kotxez gindoazela. Erderaz eskatu zidaten eta hor proiektuaren hazia jaioa zen.

Haienezko euskeraz egindako ipuinak podcast formatuan bilatu genuen eta orduan konturatu ginen euskaraz egindako umeentzako podcast eskaintza oso zabala ez zela eta podcast propioak egitea pentsatu genuen.

Ipuin guztiak Getxon gertatuko zirela erabaki genuen, umeek irudikatu dezaten istorioak eta ondoan duten ingurunean interesa jar dezaten. Gure xedea Euskal Herriko txoko ezberdinetara zabaltzea da.

Euskal Herrian oinarritutako familia osorako euskarazko podcast-a.

IPUINKADAKA, ipuinak ezkutatzen diren lekua.

NORI ZUZENDUTA DAGO?

Familia osoa goza dezan eginda daude ipuinak, eta batez ere 4 eta 12 urte bitarteko umeentzat.

Baita ere, euskara ikasten ari diren helduentzat interesgarria iruditzen zaigu, helburuak errepikatzen baitira entzumena, ahozkeraren eta leku berriak ezagutzea.

XEDE NAGUSIAK

- **Euskeraren entzumena sustatu:** Euskaraz entzutera ohitzea, umeen euskarazko hiztegia handitzeko eta ulermena garatzeko.

Euskeraren garapena ikastolatik at eramatea eta etxean garatzeko aukera hori izatea.

- **Istorioak kontatzea:** adin guztietan irudimena sustatzea berebiziko garrantzia du, gure ustez. Eta horretarako pelikulak, telesailak, idatzitako ipuinak edota marrazkiak asmatu ditugu baina euskaldunok ahozko ipuinak kontatzeko dugun ohitura zaharra formatu berri honetan plazaratu behar genuela uste dugu.



- **Euskal Herriko Txokoak**
ezagutzea: Podcast hauekin Euskal Herria ezagutzeko aukera paregabea da eta batez ere, Getxoko txokoak. Orain aurkeztutako ipuin guztiak Getxoko txoko batzuetan gertatzen da: Bizkaia Zubi esekia, Azkorriko parajea, Aixerrrotako pasealekua edo Fadurako zonaldea. Horrela, baita ere, familia osoan Podcast-ekiko interesa areagotuz.

ORIGINALITASUNA

- Ipuin guztiak originalak dira: Bereziki Getxoko herriarentzat egindakoak batez ere, errepika ezinak.
- Musika ere ipuin bakoitzarentzat espreski konposatuta dago, ipuin bakoitzak behar duen tonua eta kadentzia kontutan hartuta



eta

BOST IPUIN BOST MUNDU EZBERDINEKIN

Ipuin bakoitza pertsonai ezberdinak ditu eta Getxoko txoko ezberdinetan gertatzen da.

Bixent Sugandila: Bixent, Aixerrrotaren zaindari familia baten oinordekoa amildegian bukatu du, haize bolada baten ondorioz eta beste animali ezezagun batzuen laguntza beharko du abentura honetan bere etxera itzultzeko.

Estreinaldia: 2023ko abenduaren 3an

Xanta untxia eta kamaleoia: Ehiztari batzuk Xanta untxiaren bila dabiltza kamaleoi baten erruz. Bere irudimen osoa beharko du egoera larri horretatik irtetzeko.

Estreinaldia: 2023ko abenduaren 10an

Malda ta Zorrotz: Bi abenturazale hauek haien barruko beldurren kontra borrokatu beharko dute haien irudimen erabiliz.

Estreinaldia: 2023ko abenduaren 17an

Ipuinak bilatzen zituen ipuina: Denbora gutxi geratzen zaio Ipuin Txuriari, desagertu baino lehen, bere barruko orrialdeak istorio batekin betetzeko.

Estreinaldia: 2023ko abenduaren 24an

Niko eta dinosaurio berdea: Nikok dinosaurio bat nahi du, baina benetazko dinosaurio bat, barazkijalea eta erraldoia.

Estreinaldia: 2023ko abenduaren 31an


LAN TALDEA

Maria Urcelay (Bergara 1977)



Kazetaritzan lizentziatua, antzerkilaritzan murgildu zen orain dela hogeitun urte. Egun hartatik interpretazioaren alor guztiak ikutu ditu: sorkuntza, zuzendaritza, gidolaritza, irakaskuntza, ahotsaren lanketa eta nola ez, antzezpena. Konpainia ezberdinekin aritu izan da: Antzerkiola Imaginarioa,

Khea Ziater, Hortzmuga, Doos Kolektiboa, Arriaga Antzokiko ekoizpenak... eta beste horrenbeste egitasmo ezberdinetan kolaboratu du. Telebista eta zineman ere ikusi ahal izan dugu (Pagafantas, Eskamak Kentzen, Goenkale...)



Aitor Fernandino (Lasarte 1980)

Antzerki ikasketak Getxoko Antzerki Eskolan egin zituen.

Aktorea, Euskal Herriko antzerki talde ezberdinetan egon da:

Ados Teatro Deabru Beltzak, Txalo produkzioak Maskarada,

Erre produkzioak, Arriagako ekoizpen ezberdinetan edota La

Baldufa taldearekin. 2015. urtean Anodino Teatroa sortzen du

Ibon Aguirre (Bilbo 1979)



Soinu goi teknikaria ikasi zuen Madrilgo CES (Escuela Superior de Imagen y Sonido) eskolan. Euskadiko soinu teknikari garrantzitsuenetarikoa bilakatu da eta antzerkiarekin erlazio estua izan du. Horrela lankidetza ugariak izan ditu Hortzmuga, Laressinstens, Antzerkiola Imaginarioa edo La Dramática Errante taldeekin. Grabaketa estudio baten jabe da gaur egun eta grabaketa eta postprodukzio lanak egiten ditu talde ezberdinetarako. Hemen aurkezten dugun lagina bertan grabatu zen.

Aitor Borobia (Bergara 1979)



Getxoko Antzerki Eskolan burutu zituen ikasketak. Irten bezain laster Lastima Teatro sortu zuen eta handik gutxira Arimaktore espazio alternatiboa, azken honekin ekoizpen anitzak egin zituen, Historia de un coche edo El navegante aipatu behar dugu. P6 Laborategiarekin ekoizpen anitzak egin ditu eta aurten La Dramática Errante taldearen bi lanetan ikus dezakegu: Yerma eta Altsatu; biak Maria Goiricelaya-ren zuzendaritzapean. Telebistan eta zinean lan ugariak egin ditu, adibidez Ihesaldia, Goenkale edo Eskamak Kentzen telesaiotetan.

EKOIZLEAK



lana aurkeztu dugu: *Obsoletus*

Hainbat urtetan konpainia ezberdinetan lan egin eta gero, 2016an, Anodino Teatroa jaio zen, umorea ardatza izanda, euskaraz egindako proiektuak zabaltzeko xedearekin. Geroztik *Zerura Eroria* eta *Erbeste* lanak plazaratu ditugu. 2022an gure azken



Audiogela soinu-proiektuetan espezializatutako ekoizlea da. Podcastingerako, arte eszenikoetarako, musikarako eta arte garaikideetarako lanak egin ditugu. Bilbon dugu gure estudioa audioaren zale amorratuak gara zure proiektuei ahotsa emateko, ideiatik hasi eta azken emaitzaraino.

FITXA ARTISTIKOA

AHOTSAK:

Maria Urcelay, Aitor Borobia eta Aitor Fernandino

SOINU INGENIARIA:

Ibon Agirre

GIDOIA

Aitor Fernandino eta Aitor Borobia

EKOIZPENA



LAGUNTZAILEA



KONTAKTUA:

647 554 046 (Aitor Borobia) edo info@anodinodeatroa.com

2022ko iraila eta urrian zehar grabatuta Audiogela Estudioan